

Lehiaketaren Oinarriak:

“Hondarribia ZU ZARA CHALLENGE”

Hondarribiko Udalak 2021eko udazken honetarako lehiaketa bat antolatu du erronka gisa, “HONDARRIBIA ZU ZARA CHALLENGE” izenekoa, eta baldintza hauen arabera garatuko da:

HELBURUA: lehiaketa honen helburua da Hondarribiko zerbitzu-establezimenduetan (ostalaritza kanpo dago) kaleko merkataritza dinamizatzea.

Jendea erosteko erabakietan aldaketak sustatzera bideratutako sentsibilizazio-ekintzen kanpainaren zati gisa sortu da lehiaketa hau. Helburua merkataritza dinamizatzea da eta tokiko establezimenduetan kontsumoa sustatzea.

PARTE-HARTZAILEAK: adin nagusikoek eta Hondarribiko bizilagunek har dezakete parte. Bideo txikiak grabatu eta parte hartu ahal izango dute, betiere heldu batek izena ematen badu lehiaketan. Ezin izanen dute parte hartu denden jabeek eta kanpaina antolatzen ari diren langileek. Onuradun bakarra egon daiteke sari bakoitzeko eta irabazle bat familia bakoitzeko. Parte hartzen dutenek Ogasunarekin eta udal zergekin egunean egon beharko dute.

GAIA: Hondarribiko saltokiak sustatzeko bideoak sortzea.

Aurkezten diren bideoak galdera bati erantzun beharko diote: **zergatik da garrantzitsua zuretzat tokiko dendetan kontsumitzea?** Galdera honi erantzuteko modua librea da, ahoz, idatziz, musikaz...erantzun daiteke. Aurkezten diren bideoek emozioak hunkitu, dibertitu edo pizteko gai den istorioa kontatu beharko dute, hurbileko establezimenduetan kontsumitzeak udalerriko kaleen bizitza, ekonomia eta enplegua mantentzeko duen garrantzia ulertzen laguntzeko. Estetika eta ikuspuntua erabat libreak izango dira, baina lehiaketan aurkezten diren bideo guztiak argitaratu gabeak izango dira. Antolatzaileek eskubidea izango dute parte hartzea bertan behera uzteko, baldintza hori betetzen ez bada.

MODALITATEA:

Nahitaezko bideo-formatua: **MP4**

Bideoak nagusiki INSTAGRAM sare sozialean argitaratzeko pentsatuta daude. Ez da nahitaezko bideo-tamainarik eskatzen, baina honako hau gomendatzen da:

Bideo karratua - GOMENDATUA

Tamaina 640 x 640 px

30 eta 60 segundoko arteko iraupena.

BIDEOAK ETA AURKEZPENA: lehiakideek bideo bat aurkeztu beharko dute galdera nagusiari erantzuteko: zergatik da garrantzitsua zuretzat Hondarribiko tokiko merkataritzan kontsumitzea? Parte-hartzaile bakoitzak edozein modutan erantzun ahal izango dio galdera horri, hitz eginez, kantatuz, idatziz, marraztuz eta abar.

EZIN dira adingabeak agertu bideoan legezko tutorearen berariazko baimenik gabe (hori espresuki adierazi beharko da inskripzio orrian).

BIDEOAK BIDALTZEA: bideoak posta elektronikoz bidal daitezke **hondarribiazuzara@gmail.com** helbidera, "Hondarribia ZU ZARA Challenge" gaiarekin. Postan bideo hori eta izena emateko fitxa aurkeztu beharko dira, beteta eta sinatuta. Bideo irabazleak Hondarribiko Udalaren sare sozialen bidez eta bakoitzaren web orrien bidez zabalduko dira.

AURKEZTEKO EPEA: bideoak bidaltzeko azken eguna: **2021eko azaroaren 7an**, igandea, arratsaldeko 20:00etan.

EPAIMAHAIA: bideo irabazleak hautatzeko batzorde bat sortuko da. Epaimahaia Hondarribiko Udaleko merkataritza eta turismo saileko teknikari batek eta hiriko gutxienez 3 saltokitako zenbait ordezkari (zehazteke). Epaimahaiak jasotako bideo guztiak puntuatuko ditu eta puntuazio handiena lortzen duten bideoak hiru saridunak izango dira.

Egindako balorazioen akta egingo da.

Bideoak 1etik 5era bitarteko irizpideen arabera baloratuko dira (puntuaziorik baxuena bat da eta altuena 5). Puntuazio guztien baturak ezarriko du bideo irabazleen ordena:

- 1. Mezuaren hunkiberatasuna eta galdera nagusiaren erantzuna. Nola transmititzen duen tokiko kontsumoaren garrantzia.**
- 2. Bideoaren originaltasuna.**
- 3. Hiriko denden eta bertako produktuen eta/edo zerbitzuen kalitateari buruz transmititzen den irudia.**

SARIAK: sari banaketa 2021eko azaroaren 12an antolatuko da. Egun horretan banatuko dira 5 sariak*

1. saria: 800 €

2. saria: 500 €

3. saria: 300 €

4. saria: 250 €

5. saria: 150 €

Sariak banatu aurretik, antolatzaileek eskubidea dute lehiaketan parte hartzen duten pertsonak Hondarribian erroldatuak daudela eta beren zerga betebeharrak betetzen dituztela baieztatzeko.

Udalak bere kontu korrontean sartuko du saria erosketak egiteko. Irabazleek gehienez ere 10 egun naturaleko epea izango dute saria gastatzeko, kontuan dirua sartzen den egunetik aurrera.

Irabazleari PFEZaren kenkaria aplikatuko zaio, dagokiona.

Sariaren onuradunak erosketen faktura eskatu eta erakundeari eman beharko dio, gastua egin eta astebeteko epean.

Sariak jasotzeko, hirugarrenen alta-fitxa aurkeztu beharko da, banku-sukurtsalaren zigiluarekin.

(*) Sari hauek balioko dute Hondarribiko merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetan (ostalaritzakoetan izan ezik) erosketak egin eta zerbitzuak kontratatzeko, jasotako zenbateko osora iritsi arte.

OHARRAK:

- Udalak bere webguneko atal berezi batean emanen ditu parte hartzeko oinarriak eta datu pertsonalak inskribatu eta baimentzeko deskarga daitekeen agiri bat.
- Bidalitako bideoak, saridunak zein sarituak ez direnak, Udalaren jabetzakoak izango dira argitaratu eta/edo ikusgai jartzeko, eta, kasu guztietan, horien egileak aipatuko dira.
- Bideoen tamainak oinarrietan adierazitakoak izanen dira. Bestela, bideoak ez dira onartuko.
- Lehiakide bakoitzak sari bakarra jaso dezake.

- Lehiakideek beren merituengatik erakundeak hala irizten dien bideo guztiak argitaratzeko eskubideak laga beharko dituzte.
 - Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.
 - Lehiaketara aurkezteak baldintza hauek guztiak onartzea dakar.
 - Argibide gehiago nahi izanez gero, posta elektronikoz eskatu behar da, **hondarribiazuzara@gmail.com** helbidean.
 - Irudiak, testuak, hiztegia edo mezu iraingarriak dituzten bideoak ezingo dira bidali. Lehiaketatik kanpo geratuko dira zuzenean.
-